


**ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA
GIZONEN BERDINTASUNERAKO
III.UDAL PLANA.**
**Berdintasunerako bidean,
emakumeen kontrako indarkeriari
aurre eginez**



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

KOORDINATZAILEA: OREKA SAREA S.L.

SARRERA

Mugimendu feministari esker, emakume eta gizonen arteko berdintasuna Europako iparraldeko agenda politiko gehienetan barneratutako kontzeptua den arren, oraindik ere asko dira emakumeen diskriminazioa ahalbidetzen duten mekanismoak. Gauzak horrela ezinbestekoa da diskriminazio egoera horrek ekiditeko eta emakume eta gizonen aukera berdinak eskaintzeko berdintasun politikak martxan jartzea.

Hemen aurkezten den dokumentu honek, emakume eta gizonen berdintasunaren alde aritzeko, datozen lau urteetan Ondarroako udalerrian bultzatuko diren berdintasun politikak biltzen ditu.

Ondarroako Emakume eta Gizonen III. Berdintasun Planaren erabilgarritasuna bermatzeko herriko errealitatera egokitzen diren helburuak finkatu dira, diseinatutako ekintzek ere irizpide berbera jarraitzen dutelarik. Dokumentu hau eragile ezberdinen iritzi eta gomendioetan oinarritzen da, datozen lau urteetako berdintasun politiken diseinua herriko eta udaleko agenteekin adostea ezinbestekoa baita.

Emakumeen kontrako indarkeria sexuen arteko diskriminazioaren erakusle gordinena izanik, III. Plan honetan gai hau bereziki lantzen da, arlo guztietan lan ardatz bezala aurkezteaz gain, 2005ean landutako "Ondarroan, sexu erasoak eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumei laguntzeko, erakunde arteko koordinaziorako Udal Protokoloa" eta "Emakumeen Kontrako Indarkeriarekin bukatzeko Ekintza Plana" indartzeko neurriak atal berezi baten biltzen direlarik.

Ondarroako Udalak, III. Berdintasun Plan honen bitartez emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko zuen konpromisoa sendotu nahi du, horregatik, lan prozesuan zehar garrantzi berezia eman zaio 2005ean landutako Protokoloaren eta Planaren berraztertzeari. Honekin, biktimei babesa eta arreta integrala eskaintzeaz gain, beharrezkoak diren prebentzio neurriak bultzatzea lortu nahi da.

Plan honen garrantzia kontutan izanda eta ezinbestez agente guztien inplikazioa derrigorrezko baldintza izanik, esfortzu berezia egin da udal arlo ezberdinen eta herriko eragileen artean kooperazioa eta koordinazioa gauzatzeko.

Planaren egiturari dagokionez dokumentua ondoko ataletan dago sailkatuta:

- **Tokiko Berdintasun politiken marko legala eta teorikoa:** Berdintasun politikak diseinatzerakoan kontutan hartu beharreko kontzeptuak eta legedia.
- **Ondarroako Berdintasun Politiken Ibilbidea:** Berdintasun Arloaren ibilbidea eta dagoeneko martxan dauden eta mantendu behar diren proiektuen azalpena.
- **Metodologia eta lan prozesua:** Planaren diseinurako jarraitutako metodologia eta lan prozesuaren azalpena.
- **Planaren egitura: helburuak eta ekintzak:** Planaren bildutako helburu eta ekintzen laburpena.
- **Planaren inplementaziorako lan egiturak:** Planaren inplementazioa errazteko eta honen jarraipena egin ahal izateko ezinbestekoa da lan egiturak finkatzea; atal honetan lan egitura hauen izaera eta betebeharrak azaltzen dira.

- **Arloak eta ardatzak:** Emakunderen IV. Plana oinarritzat hartuz bi elementu egituratzaile hartu dira kontutan plana diseinatzerakoan: arloak eta ardatzak. Ardatzak - mainstreaming-a, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren parte-hartzea, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna eta emakumeen kontrako indarkeria- arlo bakoitzak jarraitu behar dituen esku hartzearen oinarriak dira; ekintza guztiak lau ardatz hauetan kokatuko dira. Arloak berriz ekintzak diseinatu, ezarri eta gauzatzeko lan eremuak dira (neurri orokorrak, kultura eta kirola, hirigintza, lana eta enplegua, hezkuntza eta gizarteratzea).
- **Emakumeen kontrako indarkeria:** Lan arlo bakoitzean emakumeen kontrako indarkeria jorratu arren, beharrezkoa da Udalean martxan dauden protokoloa eta planaren berrazterketatik eratorritako hausnarketa nagusiak atal berezi baten aurkeztea.
- **Ebaluazio sistema:** Helburuen betetze maila neurtu ahal izateko adierazleak finkatzea ezinbestekoa da. Planaren ebaluazio sistema ekintza bakoitzeko diseinatutako fitxetan eta finkatutako emaitzen adierazleetan oinarrituko da. Fitxak ekintzen arduradunek bete behar dituzte urte bukaeran, modu honetan planaren jarraipena egin ahal izateko.

TOKIKO BERDINTASUN POLITIKEN MARKO LEGALA ETA TEORIKOA

Emakume eta gizonen bizitzako esparru guztietan eskubide eta aukera berdinak izan behar dituztela aintzat hartzen duen aldarrikapena aspaldikoa da; baina azken 50 urteetan eta mugimendu feministari eta hainbat emakumeen lanari esker aldarrikapen honek indarra hartu du munduko herrialde ezberdinetara zabalduz. Botere egituren analisiaren bitartez emakume askok populazio osoa kontzientziatzeko lan berezia egin dute beraien proposamenak agenda publikoan barneraraziz.

Emakumeek eta gizonen bete izan dituzten roletan aldaketa handiak eman dira: alde batetik, emakumeen presentzia gehitu egin da espazio publikoetan eta bestetik, baliabide berriak sortu dira sexuen arteko berdintasuna oztokatzen duten zenbait arazo konpontzeko. Halere, lan merkatuari, partaidetza politikoari, etxeko lanak egiteari, emakumeen aurkako bortizkeriari, pobrezari eta abarri buruzko datuek aurrerapen horrek ez duela benetako berdintasuna islatzen eta gizonen eta emakumeen gizartean dituzten harremanetan hierarkizazioa dagoela frogatzen dute. Modu honetan, gizon eta emakumeen aukera berdinak izateko duten eskubidea gauzatzeko gaur eguneko erronka nagusienetakoa izaten jarraitzen du. Helburu hau lortzeko beharrezkoa da maila publiko eta pribatuan aldaketa sakonak ematea: legedia moldatuz, jarrera eta portaerak aldatuz eta emakumeen partaidetza mugatzen duten gizarite egiturak eraldatuz.

Sexu bereizkeria desagerrarazteko helburuarekin maila foral, autonomikoan, estatalean eta internazionalen arau eta lege ezberdinak onartu dira. Estatu espainiarreko legedian 1978. urteko Konstituzioan agertutako xedapenak aplikatzeaz gain, alor ezberdinak erregulatzen dituzten araudiak landu eta onartu dira (hezkuntza, osasuna, eskubide erreproduktiboak, Administrazio Publikoa ...) Arau hauen ekoizpena gehitu egin da azken bi urteetan berdintasunaren inguruan lanean dauden erakunde eta mugimendu ezberdinetatik planteatutako arazoei irtenbide bat bilatu nahian, lege berri garrantzitsuak landu eta onartu baitira. Hala nola, espainiar parlamentuak onartutako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Legea eta Genero Indarkeriaren aurkako Legea.

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

2006. urtean, Europako Udalerri eta Lurraldean Kontseiluak "Udalerriko gaitan Emakume eta Gizonen arteko berdintasuna bultzatzearen aldeko Europako Gutuna", idatzi zuen. Gutunaren helburua emakumeek herrigintzan parte hartzeko dituzten oztopoak identifikatu eta zerrendatzea zen, horiek gainditzeko lan ildoak proposatzen zituelarik. Ondarroako Udalak gutunean jasotzen den aukera berdintasunaren irizpidea aintzat hartuz, 2007ko Apirilaren 14an osoko bilkuran sinatu zuen.

Estatu eta Europa mailan landutako araudiek tokiko berdintasun politiken markoan lehen urratsa finkatu arren, Ondarroako III. Planaren diseinuan jarraitutako erreferentziazko dokumentuak **Eusko Lege Biltzarreko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa** eta **EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana** izan dira.

Euskal Autonomi Erkidegoak emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko neurri ugari hartu baditu ere (1988. urtean Emakumearen Euskal Erakundea sortu zenetik) 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa) onarpena da Erkidegoan eginiko aurrerapauso legalen erakusgarri garrantzitsuena.

Ondoren aurkezten diren Legearen printzipio orokorrak 3. artikuluan definitzen dira: tratu berdina, aukera berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea, genero ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren arabeko rola eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua eta lankidetzeta eta koordinazioa.

Autonomi Estatutuaren 10. artikuluan araututako eskumenak oinarritzat harturik, 4/2005 Legean gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez maila administratibo bakoitzak, bete beharreko funtzioak definitzen dira, 7. artikuluan **tokiko administrazioen eginkizunak** aurkezten direlarik:

- a) *Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.*
- b) *Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*
- c) *Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.*
- d) *Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.*
- e) *Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.*
- f) *Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*
- g) *Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*
- h) *Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.*
- i) *Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*
- j) *Emakumei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.*

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.

Nahiz eta maila juridikoan berdintasuna bermatuta izan, oraindik ez dago berdintasun errealik eta beharrezkoa da botere eta erabakiguneetan sartzeko emakumezkoak dituzten oztopoak gainditzea. Une honetan, erronka nagusia berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea da. Horregatik, legeek planteatutako mekanismo eta neurrietatik arantzago, administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi behar dituzte. Gauzak horrela, arauak indartzeko eta orokorrean gizartea sentsibilizatzeko, erakunde publikoetatik berdintasun planen elaborazioa bultzatu da.

Gaur egun Autonomi Erkidegoan abian dagoen IV. Plana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 (otsailaren 18koa) Legearen onarpenarekin sortutako esparru berrian kokatzen da. IV. Plan honen egiturari dagokionez, lau ardatz eta 6 arlo lantzen dira. Ardatzak, mainstreaminga, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren parte-hartzea, Bateragarritasuna eta Erantzunkidetasuna eta Emakumeen Aurkako indarkeria dira. Arloei dagokienez, Kultura, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Osasuna, eta Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena dira.

Mainstreaming-a:

4/2005 Legearen arabera (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa), mainstreaming-a, “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea” da.

Ahalduntzea edo jabekuntza:

Ahalduntzearen edo jabekuntzaren estrategia 4/2005 Legean dago bilduta, konkretuki, 1. artikuluan; xedeari dagokionez, “lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko” esaten da.

Emakume eta gizonei dagokienez, gure gizartean desoreka handiak daude botere, baliabide eta etekinen banaketan. Bizitzaren eremu guztietan agertzen dira botere-harreman desorekatuak, eta hainbat modutan adieraz daitezke, emakumearen autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta gizarte-arlokoa ukatuta.

Hierarkia-harreman horiek ezabatu eta botere oreka lortzeko, emakumeek boterea eskuratu behar dute, gizarte arloan genero harreman berriak eraikita eta boterea beste modu batera ulertuta: emakumeen erabateko autonomian eta herritartasunean oinarrituta, alegia.

Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna:

Sistema patriarkalak sortutako lanen banaketa sexualak, gizonak soldatapeko lanetan kokatzen ditu, hornitzaileen egitekoa esleituz eta emakumeak berriz etxeko lanetan, soldatarik gabe eta egindako lanari balio espezifikorik egotzi gabe. Etxeko lanen balioespen eskasak, lan hau ikusezin bihurtzen du.

Bateragarritasunaz eta erantzunkidetasunaz ari garenean, sexu bakoitzari egotzitako rol eta lanen arteko banaketaren eraldaketaz ari gara, gizarte eredu berri baten bidean ezinbesteko baldintza izango dena. Eredu berri horren helburua bizitzaren maila guztiak harmonizatzea da, etxeko eta zaintza lanen banaketa justuak emakume eta gizonen garapen integrala ekarriko baitu.

Emakumeen Aurkako Indarkeria:

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larriena da. Arazo honi irtenbidea emateko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak antolatzea, baina aldi berean beharrezkoa da diskriminazio mota guztien aurka lan egitea bizitzako eremu ezberdinetan: komunikabideetan, lana eta enplegu munduan, erabaki gunetan, familiarrean...

ONDARROAKO BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA

Ondarroako Udalak emakume eta gizonentzako aukera berdintasunaren aldeko politikak eta neurriak garatzen egindako lanaren jatorria ezagutzeko 1999. urtean kokatu behar gara, orduan sortu baitzen Udal Emakume Batzordea. Emakumeen partaidetza sustatzeko helburua zuen batzorde informatzaile gisa eratu arren, egunerokotasunean lortutako izaera erabakitzailea aipatu behar da, honek batzordekideen konpromisoa indartzeko ezinbesteko neurria baita. Batzordea gauzatzeko deialdia, herriko emakume taldeei luzatzeaz gain, maila indibidualen feminismoarekin lotura zuten, edota herriko gizarte mugimenduan zeresana zuten zenbait emakumeei eta indar gehien zuten alderdi politiko biei (EAJ eta EH, azken hau momentu horretan alkatetzan zegoen) luzatu zitzairen. Hasiera batean, egindako lana Gizarte Zerbitzuetatik koordinatzen baldin bazen ere, epe motzean, formalki, batzordea Idazkaritzaren menpe gelditu zen.

2000. urtean eta batzordearen eskakizunei erantzun bat emateko "Udal Emakume Zerbitzua" sortu zen, gaur egun "Berdintasun Arloa" deitzen dena. Arloaren ardura eramateko teknikari bat kontratatu zuten (INEMCCLLen bitartez eta urtebeteko eperako). Garai horretan genero diagnosis eta Ondarroako I. Berdintasun Plana gauzatu ziren 2001-2002 eperako. Batzordearen helburuetako bat postu finkoa izango zuen teknikari bat kontratatzea zen, hau 2003. urtean lortu zelarik. 2004. urtean "Ondarroako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana" aurkeztu zen.

Bidea luzea izan baldin bada ere, aurrerapauso asko eman dira Batzordearen egonkortasuna bermatzeko; argiena, Emakume Batzordearen diktamen baten bitartez, Udalbatza Osoak 2007ko apirilean "Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseilua"¹ sortzea eta kontseiluaren funtzionamendu eta antolakuntza

¹ Kontseiluaren araudian bildutakoaren arabera: *Emakumeen sektore zehatz bati zuzendutako ikuspegi asistentzialistatik eta jarduera mugatuetatik urrunduta, berdintasunaren aldeko politika integrala bultzatzearen aldeko apustua eginez, 1999. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko gaiak gizarte ongizetatik ateratzea erabaki zen. Hori dela eta, Ondarroako emakumeen partaidetza bideratzeko,*

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

araudia onestea izan da. Plan honekin Udal Berdintasun Kontseilua indartzea lortu nahi da, daukan izaera egonkorra mantenduz eta egindako lana herritarren artean zabalduz. Aldi berean, beharrezkoa da Berdintasun Arloaren kokapena zehaztea, asistentzialismotik harantzago doazen politika integralak gauzatzeko. Horretarako ezinbestekoa da Arloarekiko konpromiso politikoa mantentzea eta beharrezkoak diren baliabideak esleitzea.

Azken urteetan asko dira Arlotik bultzatutako ekimen eta proiektuak eta hauek sendotzeko lana egiten jarraitzea ezinbestekoa da:

Ondarroako Udala **Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen** partaidea da hau martxan jarri zenetik. Berdinsarea Eudel eta Emakundek bultzatutako ekimena da eta bere helburua administrazio lokalek kudeatutako berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako biolentziaren gaineko zerbitzu eta programak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea da.

Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzeko hartutako neurriei dagokienez, ezinbestekoa da **Bizkaiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskola** aipatzea, proiektu hau Ondarroan emakumeen parte-hartzea sustatzeko egindako lan garrantzitsuena izateaz gain, erreferente bihurtu baita gainontzeko herri askorentzat (Gipuzkoan eratutako Jabetze Eskola eta Durangon egindako Jabekuntza Ikastaroak dira horren erakusle).

Ondarroak 2005. urtetik parte hartzen du Bizkaiko Jabekuntza Eskolaren Sarean Basauri, Getxo eta Ermuarekin batera. Proiektu hau, asmo handiko bi helburu nagusitan oinarritzen da: emakumeek duten ezberdintasun egoeraz jabetzea eta beraien parte-hartzea sustatzea. Bukatzear dagoen 4. ikasturte honetan, proiektuaren balorazioa oso baikorra dela azpimarratu behar da, herriko 100 emakume baino gehiagok parte hartu dutelarik bertan eskainitako ikastaro eta ekintzetan.

Berdintasunaren aldeko borrokan gizonen inplikazioa bilatzeko Udal Berdintasun Arloak **Ondarroako Gizon Taldea** eratzeke bideak ireki ditu, gaur egun, maskulinitatearen inguruan formazioa jaso duen taldea martxan dagoelarik.

Herriko **ikastetxeekin hezkidetza** lantzeko proiektua martxan dago 2008. urtetik. Plan honetako hezkuntza arloan aurkeztutako zenbait neurri proiektu hau indartu eta zabaltzeko helburuarekin planteatzen dira.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 2004 eta 2005 urteetan **“Ondarroako Udalerrian tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzako erantzun asistentzialaren diagnostikoa”** egin zen eta horren ondorioz,

udal emakume batzordea sortu zen. Aldi berean, eta batzorde horren lana dela eta, urte horretan bertan Ondarroako Udalak emakume zerbitzua sortu zuen (gaur egun udal berdintasun saila dena).

Udal Emakume Batzordea Ondarroako emakumeen partaidetza bideratzeko organoa izanda, emakume elkartearen parte-hartzea ahalbidetuko zuen foroa izateko eta baita udaletik bultzatutako zitezkeen proposamen eta alternatiba berrien sorgunea izateko sortu zen.

Instituzio ezberdinetik egiten diren gomendioen arabera, Udal kontseiluak dira formularik egokienak herritarren partaidetza bideratzeko eta eredu hau da udalerrri gehienetan erabiltzen dena emakumeen elkarteak eta emakumeen partaidetza bideratzeko udal politiketan. Aldi berean, kontseilu hauek Udal Berdintasun sailarekin bat egiten dute, hau da, kontseilu hauek udal egiturarekin bat egiten dute.

“Emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzeko ekintza plana” landu zen, zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko **protokoloa** ere garai hartan zehaztu zelarik.: **“Ondarroan sexu erasoak eta tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeei laguntzeko erakunde arteko koordinaziorako Udal Protokoloa.**

Hemen aurkezten den dokumentu honetan, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko landutako protokolo eta plana indartzeko zenbait neurri aurkezten dira, gai hau baita ekintza plan honen oinarri nagusia. Lan ildo hau, Ondarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Planaren esku-hartze arloetako baten garatzen da, lehentasuneko gaia izanik, bertan, betebeharreko gutxieneko helburuak finkatzen baitira.

2008. urtean aurkeztutako genero diagnostikoan, III. Plan honetan lantzen diren atalak aztertzen dira, elkarrizketen eta datu kuantitatiboaren bilketaren bitartez eskuratutako informazioa biltzen delarik. Diagnostikoan agertzen den bezala, Berdintasun Arloa indartzeko neurriak hartzen jarraitzea ezinbestekoa da, aldi berean udal arlo ezberdinen arteko sare lana gauzatzeko neurriak hartu behar direlarik.

METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Planaren elaborazioan jarraitutako metodologia parte-hartzailea izan da, horrela, errealitatea ezagutarazteaz gain, plana inplementatzeko eta abian jartzeko beharrezkoa den gizarte mobilizazioaren oinarriak finkatu direlarik.

Errealitatearen analisi batetik abiatuz, jarraitutako ikerketa metodoak errealitate horrengan eraginak izatea dauka helburu. Izaera praktikoa eta eraldatzailea dauka, ikerketa ez da soilik ezagutze prozesurako tresna bat, parte hartzen dutenen sentsibilizazioa bideratu behar du, eraldaketa sozialerako bideak indartuz. Era parte-hartzailean landutako ikerketa-ekintza prozesua izanik, ikerketa ez da soilik talde teknikoaren esku egon, inplikaturako talde, pertsona eta eragile guztien lanaren ondorioa delarik.

Prozesu parte-hartzailea sendotzeko helburuarekin **talde eragile** bat osatu da, non Berdintasun teknikaria, Oreka Sarea S.L.ko teknikaria eta Udal Berdintasun Kontseiluko 5 ordezkari bildu diren. Talde eragileak proposamenak egiteaz gain, erabilitako metodologia berretsi eta egindako lana zabaltzea izan ditu helburu.

Herri eragileen ekarpenak jasotzeko helburuarekin 9 tailer parte-hartzaile antolatu dira:

- Kultur taldeen ordezkariekin
- Emakume kirolariekin
- Emakume etorkinekin
- Hezkuntza zentroen ordezkariekin
- 25 urtetik beherako mutil eta neskekin
- Laneratze arazoak dituzten emakumeekin
- Emakume nagusiekin (60 urtetik gorako emakumeekin).
- Kontseiluko kideekin
- Ondarroako gizon taldearekin

III. Plan honetan eta indarkeria jasaten duten emakumeei zuzendutako zerbitzu eta baliabideak hobetzeko helburuarekin, 2005. urtean landutako protokoloa eta plana oinarritzat harturik bi tailer parte-hartzaile antolatu dira ibilbide asistentzialeko pertsonalarekin. Tailer hauen helburua 2005ean landutako dokumentuen berrazterketatik eratorritako hausnarketak eta ekarpenak gehitzea eta hauetan

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

oinarritutako protokoloa adostea eta sinatzea da. Dokumentu honetan Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko egindako lana indartzea bilatu nahi da, gai honek atal berezi bat izateaz gain arlo guztietan lantzen delarik.

Tailer parte-hartzaileez gain eta erakunde publiko ezberdinetan lanean ari direnen iritzia jasotzeko helburuarekin elkarrizketa ugari izan dira:

- Udal Idazkaria
- Udaleko Euskara teknikaria
- Udaleko Kultura eta Kirol arduradun teknikoa
- Kiroldegiko arduradun teknikoa
- Liburutegiko arduradun teknikoa
- Udaleko Hirigintza arduradun teknikoa
- Udaleko Pertsonaleko teknikaria
- Leartibai Garapen Agentziako arduradun teknikoa

PLANAREN EGITURA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

Ondarroako III. Berdintasun Planean biltzen diren helburu eta ekintzak azpiko tauletan azaltzen dira:

ARLOAK	HELBURUAK	EKINTZAK
Neurri orokorrak	8	19
Kultura eta kirola	5	12
Hirigintza	5	10
Enplegua eta lana	5	10
Hezkuntza	7	10
Gizarteratzea	5	7
Emakumeen kontrako indarkeria	2	9
GUZTIRA	37	77

ARLOA	MAISTREAMING	JABEKUNTZA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
Neurri orokorrak	1.M.1. Zeharkako berdintasun politikak bultzatu eta ebaluatzeko mekanismoak sortu. 1.M.2. Gizon eta emakumeen egoera ezagutzeko tresnak landu, sexuaren araberako datuen bilketa sistemak hobetuz eta areagotuz. 1.M.3. Enplegu publikoko hautapen prozesuetan berdintasunean oinarritutako irizpideak barneratu. 1.M.4. Genero ikuspegia udal arlo ezberdinetatik landu behar den gaia izanik, langileek gai honen inguruko gutxieneko edukiak ezagutzen dituztela bermatu. 1.M.5. Berdintasun Arloa ikusarazi eta indartu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta hartu beharreko neurriak definituz.	1.J.1. Udalak esku hartzeko aukera duen erabaki guneetan emakumeen presentzia orekatua bermatu.	1.B.1. Udal langileriak bizitza familiarra, laborala eta soziala uztartzeko dituen aukerak gehitu.	1.I.1. Sexu jazarpen egoerak ekiditeko eta prebenitzeko baliabideak eskaini.
Kultura eta kirola	2.M.1. Herriko kirol eta kultur ekoizpen eta eskaintzari dagokionez, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko baloreak zabaldu. 2.M.2. Kulturara eta kirolera	2.J.1. Emakumeek kulturaren eta kirolean duten presentzia indartu, areagotu eta ikusarazi.	2.B.1. Erantzunkidetasuna bultzatzen duten espazio sozio kulturalak areagotu	2.I.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako baloreak zabaltzen dituzten espazio sozio

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

	zuzendutako baliabideak modu orekatuan, gizon eta emakumeen aprobetxamendurako erabiltzen direla ziurtatu, sexu biekiko daukan iriste maila aztertuz.			kulturalak areagotu.
Hirigintza	3.M.1. Hirigintza Arloan lanean ari diren agente ezberdinei beraien eguneroko lanean genero ikuspegia txertatzeko tresnak eskaini	3.J.1. Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen (gehienetan emakumeak) etxebizitza lortzeko laguntza eskaini. 3.J.2. Herriaren diseinu eta antolamendu urbanistikoan genero ikuspegia txertatu.	3.B.1. Herriaren plangintzaren diseinuan, enplegua, zaintza lana eta norberaren bizitza bateratzeko baliabideak eskaintzea	3.I.1. herriaren diseinu egokiaren bitartez herritarren eta batez ere emakumeen segurtasun maila gehitu
Enplegua eta lana	4.M.1. herriko enpresetan eta formazio eta enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatu	4.J.1. lan aukera gehiago duten lan eremuetan sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztu emakumeen presentzia areagotuz. 4.J.2. Emakumeen laneratzea eta egonkortasuna handitzeko baliagarriak izan daitezkeen gainontzeko baliabideak erabili eta ezagutarazi.	4.B.1. Emakume eta gizonen mendeko pertsonen zaintzan duten inplikazio maila orekatu	4.I.1. Enpresa pribatuetan jazarpen sexista prebenitzeko eta honi aurre egiteko baliabideak eskaini
Hezkuntza	5.M.1. Urteko hezkuntza programetan hezkidetzan oinarritutako baloreak barneratu 5.M.2. Emakumeen diskriminazioa indartzen duten hizkuntza erabilera, irudi eta edukiak dituzten materialak baztertu.	5.J.1. Emakume gazteen jabetasun prozesurako oinarriak finkatu. 5.J.2. Emakume etorkinen parte-hartzea eta integrazioa sustatu	5.B.1. Etxeko eta zaintza lanetan mutil eta nesken arteko erantzunkidetasuna areagotu. 5.B.2. Haurren zaintzari dagokionez, familien antolaketa errazteko baliabideak eskaini.	5.I.1. Mutil eta nesken artean berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko harremanak bultzatu.
Gizarteratzea	6.M.1. Gizarte Zerbitzuetako Arlora hurbiltzen diren emakumeen eta gizonen egoera ezagutzeko tresnak landu eta areagotu.	6.J.1. Droga mendekotasun arazoak izanik gizarte bazterketa jasateko arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko. 6.J.2. Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden etorkinei zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko. 6.J.3. 3. adineko edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko.	6.B.1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta hauen zaintzaz arduratzen direnen bizi kalitatea hobetzeko baliabideak handitu.	
Emakumeen kontrako indarkeria				7.I.1. Indarkeria jasan duten emakumeek erabiltzen dituzten ibilbide asistentzialeko zerbitzuak hobetu. 7.I.2. Indarkeria jasan duten emakumeen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren zerbitzuak eta baliabideak sortu.

PLANAREN INPLEMENTAZIORAKO LAN EGITURAK

Planaren inplementazio prozesuan eta honen jarraipena bermatzeko ezinbestekoa da lan egitura finkoak sortzea. Horrela Emakunde eta Eudeleko gomendioak jarraiki eta lan aukerak kontutan hartuta plana kudeatzeko egiturak sortuko dira.

Planaren epea 2010-2013 izanik, 2009. urtea lan egitura hauek sortu eta sendotzeko garaia izango da.

Planaren elaborazio prozesuan ikusitako beharrei erantzun bat emateko 3 lan maila edo talde antolatzea aurreikusten da:

Jarraipen batzordea (Kontseiluaren lan batzordea da): Talde eragilea prozesu guztian zehar lanean aritu den lan taldea izanik, egokiena planaren jarraipen prozesuan ere lan dinamika berdina mantentzea da. Planaren inplementazio prozesuan talde eragilearen betebeharrak nagusia kanpo jarraipena eta ebaluazioa egitea izango da. Urtean bi aldiz bilduko da gutxienez: Urte bukaeran datorren urterako aurreikusitako ekintzen plangintza aztertzeko eta proposamenak egiteko eta urte hasieran burututako ekintzen eta helburuen betetze maila neurtzeko eta urteko ekimenen balorazioa egiteko. Bileren dinamizazioa, deialdiak egitea eta aktak jasotzea Berdintasun Arloaren esku egongo da.

Funtzioak:

- Planean bildutako helburuak gauzatzeko proposamenak egin.
- Planaren jarraipena, ebaluazioa eta balioespena egin.
- Plana eta herritargoa hurbiltzeko bitartekari bihurtu.

Partaideak:

- Emakumeen Kontseiluko 5 kide.
- Berdintasun teknikaria
- Planaren ezarpenerako idazkaritza teknikoa

Batzorde teknikoa: Talde teknikoa udal arlo ezberdinen ordezkariak osatuko dute. Urtean bi aldiz bilduko dira: urte bukaeran urteko plangintza egiteko eta urte hasieran ekimenen betetze maila baloratzeko. Talde teknikoaren osaketa udal arloekin adostuko da. Talde teknikoa biltzeko deialdiak berdintasun teknikariak egingo ditu eta bileren dinamizazioa eta aktak jasotzea ere bere esku egongo da.

Funtzioak:

- rlo bakoitzean ezarri beharreko neurriak martxan jartzeko lanak koordinatu. A
- rozesuan zehar izandako gertaera, zailtasun eta gora beherak bildu (ebaluazio fitxak bete). P
- lana ezartzeko beharrezkoak diren hobekuntzak, aldaketak eta moldaketak proposatu. P

Partaideak:

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.

Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

- Kultura, Kirola, Hirigintza, Berdintasuna, Pertsonala, Idazkaritza, Euskera, Gizarte Zerbitzuak, Kiroldegia, Garapen Agentzia. (Partaideen zerrenda momentuko beharren arabera moldatuko da).

Arduradun politikoek biltzura: Planeko helburuak lortzeko eta ekintzak gauzatzeko ezinbestekoa da arduradun politikoek inplikazioa: aurrekontuen diseinuak eta onarpenak eta agenda politikoaren lehentasunak finkatzeak planaren inplementazio prozesua baldintzatzen dute. Batzorde politikoak jarraitu beharreko dinamikari dagokionez urtean behin bilduko direla aurreikusten da. Aurrekontuak urte bukaeran onartzeak beharrezkoa egiten du bilera, honen aurretik burutzea, bertan aurrekontua diseinatu, urteko plangintza egin eta aurreko urteko balorazioa egingo dira. Batzorde politikoaren deialdia gauzatzeko Berdintasun Arloaren arduradun politikoaren esku geldituko da.


Funtzioak:

- Arlo bakoitzeko, berdintasunerako neurriak ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitu.
- Udalean garatzen diren berdintasun politiken inguruko erabakiak koordinatu.

Partaideak:

- Arlo guztietako arduradun politikoak

3 lan talde hauen arteko koordinazioari dagokionez, eta beraien artean mantendu beharreko informazio fluxuari dagokionez, ondoren azaltzen den diagrama aurkezten dugu:



ESKU HARTZE ARLOAK

1. GENERO IKUSPEGIA TOKIKO ADMINISTRAZIOAN TXERTATZEKO NEURRI OROKORRAK

Egindako azken ikerketa eta diagnostikoek emakume eta gizonen formalki eskubide berdina izateak ez dituela sexu biantzat aukera berdina bermatzen frogatzen dute. Eremu ezberdinetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da administrazio publikoek arlo guztietan genero-ikuspegia txertatzeko lana egiten jarraitzea.

Eremu municipalak gainontzeko administrazioek eskaintzen ez duten hurbiltasuna eskaintzen du herritarren eskaera eta beharrei erantzuteko. Beraz, beharrezkoa da bere inplikazioa berdintasun politikak bultzatzeko, tokiko gainontzeko erakunde publiko zein pribatuentzat eredu bihurtzeko daitekeelarik.

Lehenbiziko lan eremu honek, genero ikuspegia tokiko administrazioan barneratzeko beharrezkoak diren neurri batzuk biltzen ditu, ekintza positiboa eta mainstreaming-a bultzatuz.

Ondarroako genero diagnostikoak Berdintasun Arloaren ikusezintasuna agerian utzi zuen: arloa alkatetzan kokatuta egotea positibotzat jotzen bada ere (zeharkakotasuna bultzatzeko helburua baitu) honek, nahasketa eragiten baitu. Atal honetan Berdintasun Arloa indartzeko neurriak azaltzeaz gain, Udal egitura osoan kontutan hartu beharreko gutxiengoak finkatzen dira.

MAINSTREAMING

1.M.1. Helburua:

Zeharkako berdintasun politikak bultzatu eta ebaluatzeko mekanismoak sortu

1.M.1.1. Ekintza: III. Planaren jarraipen batzordearen bilera deialdiak egin bertan landutako proposamenak bilduz eta talde teknikoari helaraziz.

Azalpena: Planaren jarraipen batzordea elaborazio prozesuan lanean aritu den talde eragileak osatuko duela aurreikusten da. Gutxienez urtean bi aldiz bilduko da (hasieran urteko plangintza lantzeko eta bukaeran jarraipena egiteko).

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Talde eragilea, Berdintasun Kontseilua, Idazkaritza teknikoa.

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.1.2. Ekintza: Planaren inplementazioa eta ebaluazioa egiteaz arduratuko den talde teknikoa sortu eta urtero egin beharreko bilerak antolatu, jarraipen batzordeak landutako plangintza aurkeztuz eta ebaluazioak egiteko beharrezkoak diren fitxak landuz.

Azalpena: Talde teknikoaren osaketa, planaren inplementazio egokia lortzeko helburuarekin adostuko da. Gutxienez urtean bi aldiz bilduko da (hasieran urteko plangintza lantzeko eta bukaeran ebaluazioa egiteko). Urte bukaeran eta ebaluazio fitxak oinarritzat hartuz Berdintasun Arloak batzorde politikoan aurkeztu beharreko ebaluazio txostena landuko du.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Udal arlo guztiak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarrik aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.1.3. Ekintza: Plana indartzeko eta beharrezkoa den inplikazio politikoa bermatzeko helburuarekin batzorde politikoa sortu eta lan bilerak antolatu.

Azalpena: Batzorde politiko honen betebeharrak nagusia urte hasieran plangintza diseinatzea eta horretarako beharrezkoak diren aurrekontuak esleitzea izango da. Aldi berean, urte bukaeran gauzatutako ekintzen eta lortutako helburuen jarraipena egingo dute.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Udal arloetako ordezkari politikoak

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarrik aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.1.4. Ekintza: Planaren ebaluazioa eta jarraipena burutzeko idazkaritza teknikoa martxan jarri.

Azalpena: Urte hasieran jarraipen batzordeak egindako proposamenak, planean aurreikusitako ekintzak eta hauen betetze maila aztertzen duten adierazleak kontutan hartuta egindako ebaluazio txostena landu.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Udal Arlo guztiak, Idazkaritza teknikoa, batzorde politikoa eta jarraipen batzordea

Aurrekontua: 25.000 € (4 urterako)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.1.5. Ekintza: Genero ikuspegia udal arlo guztietan modu egonkorrean baneratzeko udal ordenantza bat landu.

Azalpena: Tolosako eredu jarraituz eta EUDELen elkar laguntzarekin, genero ikuspegia udal politiketan integratzeko udal ordenantza landu.

Arduradunak: Gobernu Batzordea, Idazkaria

Inplikaturako agenteak: Udal Arlo guztiak, Talde eragilea, Berdintasun Kontseilua, Batzorde politikoa, talde teknikoa

Aurrekontua: 10.000 €

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.2. Helburua:

Gizon eta emakumeen egoera ezagutzeko tresnak landu, sexuaren arabeko datuen bilketa sistemak hobetuz eta areagotuz.

1.M.2.1. Ekintza: Udaletik egiten diren estatistika, inkesta, ikerketa eta datu bilketa guztietan sexu aldagaia sistematikoki sartu. Aldi berean, sexu aldagaia erabiltzen diren gainontzeko aldagaiekin gurutzatzeko aukera eman.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 16. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Udal arlo guztiak

Inplikaturako agenteak: Udal langileria eta ikerketa eta azterketak burutzeko kontratatutako enpresak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.3. Helburua:

Enplegu publikoko hautapen prozesuetan berdintasunean oinarritutako irizpideak barneratu

1.M.3.1. Ekintza: Emakumeen presentzia urria den lan eremuetan aritzeko egiten diren enplegu publikoko deialdietan klausula bat jarri non trebakuntzaren ikuspegitik gizon eta emakumearen artean gaitasun bera dagoenean eta lan eremu horretan emakumeen presentzia %40a baino gutxiago denean emakumeari emango zaion lehentasuna. Neurri bera aplikatuko da gizonen presentzia urria den lan eremuetan: gaitasun bera frogatzen denean gizonari emango zaio lehentasuna.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikuluan

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikaturako agenteak: Bete beharreko lanpostuak kokatzen diren arloak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.3.2. Ekintza: Hautaketa epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatu.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikaturako agenteak: Epaimahaietako kideak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.4. Helburua:

Genero ikuspegia udal arlo ezberdinetatik landu behar den gaia izanik, langileek gai honen inguruko gutxieneko edukiak ezagutzen dituztela bermatu.

1.M.4.1. Ekintza: Udalak zeharka kontratatzen dituen enpresa eta langileei dagokienez, emakume eta gizonak kontratatuzeko portzentajeak ezarriko dira, enpresaren tamainaren, jardunaren eta sektorearen arabera. Genero berdintasunaren aldeko lana egin dutela frogatzen dutenei kontutan hartuko zaie puntuatzeko orduan.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Udal arlo guztiak

Inplikaturako agenteak: Zeharka kontratatutako enpresak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarrik aurreikusten.
Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.4.2. Ekintza: Enplegu publikora sartzeko hautapen prozesuetan Udalak emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioari eta horrek administrazio jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartuko ditu.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 17. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikaturako agenteak: Hautapen prozesuak ireki dituzten udal arloak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarrik aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.4.3. Ekintza: Udal langileriari zuzendutako formazio planean berdintasunaren inguruko jakintzak eskuratzeko aukera eskaini.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 17. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikaturako agenteak: Udal arlo guztiak

Aurrekontua: Aurrekontua ikastaroaren ezaugarrien arabera definituko da (erakunde arduraduna, ordu kopurua ...)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.5. Helburua:

Berdintasun Arloa ikusarazi eta indartu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta hartu beharreko neurriak definituz.

1.M.5.1. Ekintza: Udaleko web orrialdean Berdintasun Arlotik bultzatutako ekimen eta programa nagusien inguruko informazioa eskaintzeko atal bat sortu.

Azalpena: Web orrialdean, Berdintasun Arlotik egindako lana ezagutarazteko atal berezi bat sortu, Arloa identifikatzeko tresna baliagarria izan baitaiteke.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Informatika arduraduna

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarrik aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.M.5.2. Ekintza: Aurrekontuei dagokienez, Berdintasun Arloa Gizarte Zerbitzuetatik ezberdintzeko beharrezkoak diren neurriak hartu.

Azalpena: Aurrekontuak Gizarte Zerbitzuetan kokatu izanak nolabaiteko izaera asistentzialista ematen dio Berdintasun Arloari, honek, egin beharreko lanaren inguruan nahasketa sortzen duelarik.

Arduradunak: Kontu-hartzailea

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, Gizarte Zerbitzuak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

1.J.1. Helburua:

Udalak esku hartzeko aukera duen erabaki guneetan emakumeen presentzia orekatua bermatu.

1.J.1.1. Ekintza: Udalak sustatutako edo diruz lagundutako sari guztiak emateko sortutako epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatu.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Udal arlo guztiak

Inplikaturako agenteak: Sariak emateko epaimahaiak eratzen dituzten udal arlo guztiak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.J.1.2. Ekintza: Udalak sustatutako edo diruz lagundutako elkarteetako zuzendaritza organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatua bilatuko da, diru laguntzen deialdietan baldintza hau bilduko duen klausula bat gehituko delarik.

Azalpena: 4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikuluan araututakoaren arabera.

Arduradunak: Udal arlo guztiak

Inplikaturako agenteak: Herriko elkarteak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.J.1.3. Ekintza: Emakumeen topagunea sortu beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta Arlotik eskainitako zerbitzuen kudeaketa bertatik eskainiz.

Azalpena: Topagune honetan Jabekuntza Eskola kokatuko da eta modu egokian kudeatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaini beharko ditu. Horretarako beharrezkoa da espazio fisiko egoki bat izatea.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hirigintza Arloa (espazio fisikoa egokitu),
Berdintasun Kontseilua

Aurrekontua: Eskuragarri dauden espazioen ezaugarrien arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

1.B.1. Helburua:

Udal langileriak bizitza familiarra, laborala eta soziala uztartzeko dituen aukerak gehitu

1.B.1.1. Ekintza: Lan ordutegien egokitasuna aztertu eta hobetzeko proposamenak jasotzeko sistema bat sortu.

Azalpena: Eskainitako zerbitzuaren kalitatea mantenduz, udal langileei beraien bizitza familiarra, soziala eta laborala uztartzeko aukerak eman, ordutegiaren inguruan dituzten iritziak bilduz, dauzkaten beharrezanean erantzun bat emanez eta erantzunkidetasunaren inguruko baloreak zabalduz.

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikaturako agenteak: Udal langileria

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

1.I.1. Helburua:

Emakumeen kontrako indarkeria egoerak ekiditeko, prebenitzeko eta hauei aurre egiteko baliabideak eskaini

1.I.1.1. Ekintza: Indarkeriaren aurkako protokoloaren koordinazioa hobetzeko eta bertan bildutako zerbitzu, hitzarmen edo baliabideak martxan jartzeko beharrezko pausoak eman.

Azalpena: Protokoloa bete beharrezko dokumentua izanik, ezinbestekoa da sinatutako konpromisoa gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitzea eta mantentzea.

Arduradunak: Protokoloaren koordinazio orokorra (arduradun politikoa), Koordinazio Teknikorako Mahaia, Koordinazio Politikorako Batzordea.

Inplikaturako agenteak: Protokoloa sinatu duten gainontzeko agenteak

Aurrekontua: Protokoloaren koordinazio mahaietan adostuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

1.I.1.2. Ekintza: Udal langileriari zuzendutako sexu jazarpen protokoloa landu eta zabaldu

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

Azalpena: Sexu jazarpena lan munduan ematen den emakumeen kontrako indarkeriaren erakusle esanguratsuenetako izanik, arazo honen aurrean hartu beharreko neurrien inguruko informazioa eskaini. Landutako protokoloa herritarren artean zabaltzeko aukerak eta neurri honen egokitasuna lan prozesua hasitakoan zehaztuko dira.

Arduradunak: Giza baliabideen arduraduna

Inplikatutako agenteak: Udal langileria

Aurrekontua: 4.000 euro. Aurrekontua protokoloari ematen zaion zabaltzearen araberakoa izango da, hemen aurkezten den kopurua, udal egiturari zuzendutako lanari mugatzen delarik.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2. KULTURA ETA KIROLA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hauxe dio 25. artikuluan, jarduera kulturei dagokionez: *“Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan”*.

Genero ikuspegia Kulturen txertatzeaz ari garenean gure “emakume” eta “gizon” izatea egituratzen duten ideia eta aurreiritzien eraldaketarako ezinbesteko tresnaz ari gara. Emakumeek historikoki kulturearen igoerle garrantzitsuak izan badira ere, hauek egindako ekarpenak ezkutuan mantendu dira.

Azken urteotan, kultura-guneetan emakumeen presentzia areagotu baldin bada ere, badaude oraindik gaintitu beharreko hainbat oztupo kultura- baliabideetako sarbideari eta horien gaineko kontrolari dagokionez. Kultura arloan, estrategikotzat jotzen da emakumeen kultura arloko sorkuntza eta produkzioa bultzatzea, hauek gizarteari egindako ekarpenak ikustaraziz.

Ondarroan berriki egindako diagnosiaren arabera, emakumeen partaidetza eta presentzia kirolean gizonena baino urriagoa da. Horregatik, emakumeen kirola bultzatzea eta dauden kirol taldeetan emakumeen presentzia areagotzea beharrezkotzat jotzen dira. Era berean, nahitaezkoa da emakume eta gizonen kultura-arloko interesak, itzaropenak eta zaletasunen errealitateari erantzutea genero ikuspegi batetik.

Honen aurrean beharrezkoa da Kultura eta Kirol Arloak, emakume eta gizonei aukera berdinak eskaintzea, beharrezkoa den kasuetan ezberdintasunak ekiditeko neurri bereziak planteatuz eta herriko ekimenetan emakumeen parte hartzea indartzeko bideak zabalduz. Atal honetan, kulturarekin eta kirolarekin lotutako baliabideak gizon eta emakumeengana modu orekatuan heltzea erraztuko duten neurriak aurkezten dira.

MAINSTREAMING

2.M.1. Helburua:

Herriko kirol eta kultur ekoizpen eta eskaintzari dagokionez, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko baloreak zabaltu.

2.M.1.1. Ekintza: Kultura arloari dagokionez dauden data esanguratsuak erabili berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpainak egiteko.

Azalpena: Inauterietan, herriko jaietan eta Gabonetan aurkeztutako plangintzetan berdintasunaren irizpidea kontutan hartzen duten ekimenak planteatu (antzezlanak, kontzertuak ...)

Arduradunak: Kultura Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarririk aurreikusten, dagoeneko ekintzak burutzeko esleitutako aurrekontua ekimen hauetara bideratu behar da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.M.1.2. Ekintza: Emakumeen borrokarekin lotutako kanpainetan, gaiarekin lotura duten liburu eta pelikulen gida bat landu

Azalpena: Martxoak 8, ekainak 28 eta azaroak 25eko kanpainekin batera landutako gaiarekin bat egiten duten materialen gidak landu.

Arduradunak: Liburutegia,

Inplikaturako agenteak: Kultur Arloa, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: 1.000€

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.M.1.3. Ekintza: Udaleko kirol eta kultur zerbitzuetako azpi-kontratazioetan, hezkidetzan formazioa jaso izana kontutan hartuko dela azaltzen duen klausula bat gehitu.

Azalpena: Kiroldegitik edo Kultura eta Kirol Arlotik kontratatutako enpresak (ekimenak antolatze edo gauzatzeko) emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko formazioa jaso izana modu positiboan baloratuko da adjudikazioak egiterakoan.

Arduradunak: Kiroldegia, Kultur eta Kirol Arloa

Inplikaturako agenteak: Kontratatutako enpresak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.M.2. Helburua:

Kulturara eta kirolera zuzendutako baliabideak modu orekatuan, gizon eta emakumeen aprobezgamendurako erabiltzen direla ziurtatu, sexu biekiko daukan iriste maila aztertuz.

2.M.2.1. Ekintza: Diru laguntzen eskaera eta justifikazioetan kultur eta kirol elkarteek genero ikuspegia barneratzeko irizpideak jarri.

Azalpena: Herriko elkartei, diru laguntzen deialdietan eskatutako diruak gizon eta emakumeengan izango duen eragina aurreikustea eskatu (kasu batzuetan honek suposatzen ditzakeen zailtasunak kontutan hartu beharko dira). Justifikazioetan diru horrekin finantzaturako ekimenetan emakume eta gizonen aprobezgamendu maila aztertzea eskatu.

Arduradunak: Kultura Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.M.2.2. Ekintza: Herriko kirol instalazioen erabileraren inguruko datuak bildu sexu aldagaia kontutan hartuz (ikastaroak eta gainontzeko instalazioak).

Azalpena: Emakume eta gizonen baliabideekiko duten iriste maila ezagutzeko datu bilketa sistema diseinatu, erabiltzaileen sexua irizpidetzat hartuz.

Arduradunak: Kiroldegia

Inplikaturako agenteak: Kirol Arloa

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

2010	2011	2012	2013

2.M.2.3. Ekintza: Genero ikuspegian oinarritutako kirol diagnostiko bat egin herriko beharrianak identifikatu neurri zuzengarriak diseinatzeko.

Azalpena: Emakume eta gizonen kirol baliabideekiko duten iriste maila aztertu. Lan honetarako kirola eta genero berdintasuna lantzen duen enpresa bat kontratatzea aurreikusten da.

Arduradunak: Kultur eta Kirol Arloa,

Inplikaturako agenteak: Kiroldegia, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: 12.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

2.J.1. Helburua:

Emakumeek kulturen eta kirolean duten presentzia indartu, areagotu eta ikusarazi

2.J.1.1. Ekintza: Emakume artistei edo kirolarietara zuzendutako beka edo diru laguntza bereziak eskaini.

Azalpena: Emakumeen presentzia indartzeko hauei zuzendutako beka edo diru-laguntzak sortu, arloaren gaitasuna kontutan hartuz.

Arduradunak: Kultura eta Kirol Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, Berdintasun Kontseilua, herriko emakume artista eta kirolariak.

Aurrekontua: Aurrekontua eskaintako beken helburu eta zioen arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.J.1.2. Ekintza: Haur eta nerabeak, batez ere neskek, kirol jardueran aritzeko programa berezi bat landu hezkuntza zentroetan.

Azalpena: Emakume kirolarien ereduak ezagutarazi ikastetxeetan, hauekin hitzaldi edo mahai inguruak antolatuz.

Arduradunak: Kultura eta Kirol Arloa,

Inplikaturako agenteak: Hezkidetza Batzordea eta Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Aurrekontua hizlari eta ekimen kopuruaren arabera finkatu behar da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.J.1.3. Ekintza: Gaur egun eskuragarri dauden kirol aukera ezberdinen eta instalazioen inguruko informazioa eskaini hezkuntza zentroetan.

Azalpena: Herriko kirol baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaini, hauen egoera kontutan hartuz eta kasuan kasuko kirola sustatzeko ekimenak antolatuz.

Arduradunak: Kultura eta Kirol Arloa,

Inplikaturako agenteak: Kiroldegia, Berdintasun Arloa eta Hezkidetza Batzordea

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

2.B.1. Helburua:

Erantzunkidetasuna bultzatzen duten espazio sozio kulturalak areagotu

2.B.1.1. Ekintza: Bateragarritasuna islatzen duten irudi eta mezuak erabili kulturatik eta kiroltik bultzatzen diren ekintzen difusioan.

Azalpena: Zabaldutako informazioetan erabilitako irudi eta hizkuntzak bateragarritasunaren aldeko mezuak zabaltzea kontutan hartu.

Arduradunak: Kultura eta Kirol Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

2.B.1.2. Ekintza: Haurtzaindegi zerbitzua eskaini Kultura eta Kirol Arlotik antolatutako zenbait ekimenetan.

Azalpena: Zerbitzuaren beharra neurtzeko, Arlotik antolatutako zenbait ekimenetan haurtzaindegi zerbitzua eskaini (antzezlanetan, kirol frogetan ...). Lan honetarako lehenbizi herriko aisialdi taldeengana jotzea gomendatzen da, Udala eta beraien arteko hitzarmen bat sinatzeko aukera aztertuko delarik.

Arduradunak: Kultura eta Kirol Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, aisialdi taldeak

Aurrekontua: Aurrekontua aisialdi taldeekin adostuko da eta zerbitzua eskainiko den ekimenen kopuruaren arabera izango da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.I.1. Helburua:

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako baloreak zabaltzen dituzten espazio sozio kulturalak areagotu

2.I.1.1. Ekintza: Oporraldian antolatzen diren ludoteka eta jolas txokoan emakumeen aurkako indarkeria lantzeko neurriak hartu.

Azalpena: Ekimen hauen ardura daukan aisialdi taldearekin emakumeen kontrako indarkeria landuko dutela adostu.

Arduradunak: Kultur eta Kirol Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, aisialdi taldeak

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarririk aurreikusten, dagoeneko ekintzak burutzeko esleitutako aurrekontua ekimen hauetara bideratu behar da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3. HIRIGINTZA

Arlo honetan aurkezten diren ekintzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikuluko 1. zatian oinarritzen dira: *“Euskal herri-aginteeek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”*.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean agertzen den bezala, hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuko planifikazioan emakumeen beharrezkoak, ekarpenak eta onarpena txertatu ahal izateko, emakumeen partaidetza eta berdintasuna aintzat hartu behar dira planifikazio eta erabakiak hartzeko prozesuan. Horrez gain, azpiegiturak egokitu behar dira eremu publiko eta pribatuaren arteko bateragarritasuna ahalbideratuz eta irisgarritasuna eta segurtasuna indartu behar dira.

MAINSTREAMING

3.M.1. Helburua:

Herriaren diseinu eta antolamendu urbanistikoan genero ikuspegia txertatu.

3.M.1.1. Ekintza: Genero ikuspegiak hirigintzan duen zeresanaz kontzientziatzeko eta honen inguruan informazioa eskaintzeko formazio saio bat egin Arloko Udal langileriarekin.

Arduradunak: Hirigintza Arloa,

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa

Aurrekontua: 2000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.M.1.2. Ekintza: Agenda 21en baitan egindako lanean genero ikuspegia txertatu.

Azalpena: Udalak Agenda 21en plangintzan egindako lana indartzea beharrezkoa da, genero ikuspegia txertatzeko neurriak hartzea ezinbestekoa delarik.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

3.J.1. Helburua:

Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsoneri (gehienetan emakumeak) etxebizitza lortzeko laguntza eskaini.

3.J.1.1. Ekintza: Herrian hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko sistema bat ezartzeko aukerak aztertu.

Azalpena: Beste herri batzuetan izandako erabilgarritasuna ikusirik eta Ondarroan etxebizitzak eskuratzeko dagoen arazoa kontutan izanda etxebizitzaren alokairuak eskuratzeko sistema ezartzeko pausuak eman.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Ondarroa Lantzen

Aurrekontua: Aurrekontua ekintzaren inplementazio mailaren araberakoa izango da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.J.1.2. Ekintza: Babes ofizialeko etxebizitzetara eta etxebizitza tasatuetara emakumeek duten iriste maila aztertu (egiten diren eskaerak eta esleipenak sexuka bildu eta beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak hartu).

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Ondarroa Lantzen

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.J.2. Helburua:

Antolamendu urbanistikoaren diseinurako eraturako erabaki guneetan emakumeen presentzia bermatu.

3.J.2.1. Ekintza: 2004. urtean Ondarroako emakumeek egin zuten txostena berrikusi eta landu, non herriko plangintzan barneratu beharreko hobekuntzak biltzen ziren, bertan aztertzen ziren arlo ezberdinen (garraioa, emakumeen presentzia sinbolikoa, dotazioak, segurtasuna eta irisgarritasuna) inguruko informazioa eguneratuz eta beharrezkoak diren neurriak diseinatu.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Kontseilua, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: 10.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.J.2.2. Ekintza: Hirigintza Kontseiluan emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bermatu

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Hirigintza Kontseiluko kideak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.J.2.3. Ekintza: Emakumeek herrian duten presentzia sinbolikoa gehitu, emakumeen izena daramaten kale, toki eta monumentuak gehituz.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, Berdintasun Kontseilua

Aurrekontua: Egokitutako espazioaren ezaugarrien arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

3.J.2.4. Ekintza: Emakumeen topagunea gauzatzeko toki fisikoa egokitu sortu.

Azalpena: Topagune honetan Jabekuntza Eskola kokatuko da eta modu egokian kudeatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaini beharko ditu.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Eskuragarri dauden espazioen ezaugarrien arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

3.B.1. Helburua:

Herriaren plangintzaren diseinuan, enplegua, zaintza lana eta norberaren bizitza bateratzeko baliabideak eskaintzea

3.B.1.1. Ekintza: Mendeko pertsonen zaintza hobetzeko, zaintzaileen eta mendekoen erosotasuna bermatuko duen toki baten egokitzapena

Azalpena: Batez ere haurren zaintzari zuzendutako tokia egokitu: aterpearekin eta zaintza lana errazteko baliabideak eskainiz.

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Kontseilua, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Aurrekontua dauden baliabideak zerrendatzerakoan definituko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

3.I.1. Helburua:

Herriaren diseinu egokiaren bitartez herritarren eta batez ere emakumeen segurtasun maila gehitu

3.I.1.1. Ekintza: Segurtasun ezari dagokionez, herriko tokiak identifikatu eta hauek egokitzeko egin beharreko hobekuntzak diseinatu.

Azalpena: 3.J.2.1. ekintzarekin batera gauzatzea komeni da

Arduradunak: Hirigintza Arloa

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, Berdintasun Kontseilua, herriko elkarteak

Aurrekontua: 3.J.2.1. ekintzaren aurrekontuan barneratuta

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4. ENPLEGUA ETA LANA

Arlo ekonomikoaz hitz egiterakoan beharrezkoa da eremu produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa egitea, ezberdintze hau sexuen artean ematen diren bereizkeria egoerak ulertzeko tresna baliagarria baita.

Produktio lanak truke balioa dauka merkatuan eta tradizioz gizonen esku egon da. Lan erreproduktiboari ordea (ugalketa lanak eta orokorrean oinarritzko gizarte premiak aurrera eramateko beharrezkoak diren mantentze lanak) ez zaie balio ekonomikorik aplikatzen eta jendartearen emakumeek eskainitako doako lanarekin lotzen da. Sexuen arteko ezberdintasunak ekiditeko beharrezkoa da bi aktibitate horiek sortzen dituzten lanak emakume eta gizonen artean banatzea eta bakoitzaren balioa kontutan hartzea. Emakumeak lan merkaturatzean eta lanbide garapenean dituzten aukerak gizonak dituztenekin parekatzeko helburuarekin 4/2005 Legeak ondoko hau adierazten du bere 36. eta 37. artikuluan administrazio publikoen paperari dagokionez: “... emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu berdintasuna erreal eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan”. “Laneratzen laguntzeko prozesu integraleko fase bakoitzean genero ikuspegia nola txertatu erakutsiko diete, hain zuzen, beren enplegu-zerbitzuetako langileei eta erakunde laguntzaileetako. Laguntza-faseok hauek dira: informazioa eta orientazioa, prestakuntza, bitartekotza, laneratze laguntza eta laneratzearen jarraipena, eta sustapen enpresariala eta autoenpleguaren sustapena”.

Ondarroako herrian enplegu arlotik bultzatzen diren neurri eta ekimenak Lea Artibaiko Garapen Agentziaren esku daude, hauen lan eremua eskualde osora zabaltzen delarik. Planaren helburu eta ekintzak diseinatzerakoan ezaugarri hau kontutan hartu baldin bada ere, ezinbestekoa da honek eragin ditzakeen zailtasunak aintzakotzat hartzea (udalerrien arteko adostasun eza, koordinaziorako zailtasunak, esku hartzerako aukera mugatuak...).

MAINSTREAMING

4.M.1. Helburua:

Herriko enpresetan eta formazio eta enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzen hasteko neurriak hartu.

4.M.1.1. Ekintza: Lea Artibaiko Garapen Agentzian erabiltzen diren datu guztiak sexuka ezberdindu: egindako ikerketetan eta erabilitako datu baseetan (enpresen inguruko informazioa, ikastaroen ingurukoa...)

Azalpena: Datu baseak egokitzeko neurriak hartuko dira, sexu aldagaia datuak lantzeko aldagaiari nagusi izateko aukera eskainiz

Arduradunak: Garapen Agentzian parte hartzen duen Udal arduradun politikoa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.M.1.2. Ekintza: Ikastaroetan eskaintzen den aukera berdintasun moduluaren edukiak berrikusi eta ikastaro bakoitzaren errealitatera egokitu (lantzen den materiala berrikusi eta ikasleen ebaluazioak kontutan izan hobekuntzak barneratzeko).

Azalpena: Lea Artibaiko Garapen Agentziatik eskaintako formazio ikastaroetan berdintasunaren inguruko edukiak lantzerakoan, hauek, ikastaroaren berezitasunetara moldatzen direla ziurtatu behar da.

Arduradunak: Garapen Agentzian parte hartzen duen Udal arduradun politikoa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Aurrekontua ikastaroen gastuen barruan kontabilizatzen da, modulu hau eskaintako programen baitan kokatzen baita.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.M.1.3. Ekintza: Berdintasun politikak txertatzearen inguruan garatutako esperientziekin lotutako materialak bildu eta enpresen edo bestelako eragileen (sindikatuak, etab.) artean banatu.

Azalpena: Enpresetan berdintasunaren aldeko baloreak lantzean emandako esperientzia ezberdinen inguruko informazioa banatzeaz gain, esperientzia hauek bertan lantzeko aukera eskainiko da materialen banaketaren bitartez.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia, eskualdeko enpresak, sindikatuak

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.M.1.4. Ekintza: Enpresetako berdintasun planen inguruko jardunaldi bat antolatu eskualdeko enpresei zuzenduta

Azalpena: Eskualdeko enpresei zuzenduta sektore pribatuan landutako berdintasun planen inguruko jardunaldia antolatuko da, kanpoko esperientzien ezagutzaren bitartez, horrela, bertoko enpresetan kontzientziazio lana egingo baita.

Arduradunak: Garapen Agentzian parte hartzen duen Udal arduradun politikoa,

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia, Berdintasun Arloa, eskualdeko enpresak

Aurrekontua: 2.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

4.J.1. Helburua:

Lan aukera gehiago duten lan eremuetan sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztu emakumeen presentzia areagotuz.

4.J.1.1. Ekintza: Eskualdean eskaintza gehien duten lan eremuetara zuzendutako ikastaroak eskaini, emakumei bertan parte hartzeko lehentasuna eman eta berdintasunaren aldeko baloreak landuz.

Azalpena: Lan aukera handiagoak dituzten sektoreetan aritzeko formazio ikastaroetan (normalean sektore maskulinizatuak izaten dira) emakumeen presentzia bermatzeko hauek egindako eskaerei lehentasuna emango zaie.

Arduradunak: Garapen Agentzian parte hartzen duen Udal arduradun politikoa

Inplikaturako agenteak: Leartibaiko Garapen Agentzia

Aurrekontua: Ikastaroaren ezaugarrien arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.J.1.2. Ekintza: Emakume etorkinen laneratzea errazteko programa bereziak landu (sektore honen berezitasunak eta beharrianak kontutan hartuz).

Azalpena: Aukeren arabera zehaztuko dira etorkinei zuzendutako programa bereziaren ezaugarriak

Arduradunak: Garapen Agentzian parte hartzen duen Udal arduradun politikoa

Inplikaturako agenteak: Leartibaiko Garapen Agentzia

Aurrekontua: 10.000 euro (2 urtetan)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.J.2. Helburua:

Emakumeen laneratzea eta egonkortasuna handitzeko baliagarriak izan daitezkeen gainontzeko baliabideak erabili eta ezagutarazi

4.J.2.1. Ekintza: Lea Artibaiko Garapen Agentziara hurbiltzen diren emakumei Jabekuntza Eskolaren berri eman (Eskolaren inguruko triptikoa banatuz eta eskaintzen diren ikastaroen informazioa eskainiz)

Azalpena: Informazioa banatuko da Lea Artibaiko Garapen Agentzien bulegoetan.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Leartibaiko Garapen Agentzia

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

4.B.1. Helburua:

Emakume eta gizonek mendeko pertsonen zaintzan duten inplikazio maila orekatu

4.B.1.1. Ekintza: Zaintzaren inguruan egindako diagnostikoan hasitako lanari jarraipena eman, emakume zaintzaileei zuzendutako tailerra antolatuz, bertan zaintza lanak emakumeengan dituen ondorio latzak eta arazoaren ikuspuntu politikoa landuko direlarik.

Azalpena: Genero ikuspegitik emakume zaintzaileei zuzendutako ikastaroa antolatu Jabekuntza Eskolaren baitan.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Jabekuntza Eskola, Gizarte Zerbitzuak

Aurrekontua: 1.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

4.B.1.2. Ekintza: Herriko enprekin, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzeko programa bat landu.

Azalpena: Herriko enpresak langileen beharrianak kontutan har ditzaten eta zaintza lanean gizonen inplikazioa gehitzeko neurriak har ditzaten programa bat landu (dokumentazioa zabaldu, kanpaina bat ...)

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia, herriko enpresak

Aurrekontua: Programaren berezitasunen arabera finkatuko da

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

4.I.1. Helburua:

Enpresa pribatuetan jazarpen sexista prebenitzeko eta honi aurre egiteko baliabideak eskaini

4.I.1.1. Ekintza: Jazarpen sexista prebenitzeko eta honi aurre egiteko protokoloak zabaltzeko kanpaina bat egin eskualdeko enpresa pribatuetan.

Azalpena: Landuta dauden ereduak bildu eta informazioa zabaldu eskualdeko enpresetan. Egokia litzateke berdintasun planak lantzeko jardunaldietan sexu jazarpena ere lantzea, enpresen artean informazioa zabalduz.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Garapen Agentzia eta eskualdeko enpresak

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5. HEZKUNTZA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak halaxe biltzen du III. kapituluko (hezkuntza) 1. ataleko (unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza) 28. eta 29. artikuluan: “Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rola baxtertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear”. “Hezkuntza administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta hezkidetzeta-helburuak integratutako ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinatako curriculumaren diseinuan eta garapenean”.

Nahitaezkoa da hezkuntzaren eremutik prebentzio lana egitea emakume eta gizonen artean eman daitezkeen ezberdintasunak eta desorekak saihesteko, horretarako hezkidetzan oinarritutako balioen zabaltzea eta sendotzea ezinbestekoa da.

Arlo honetan biltzen diren neurrien bitartez, aurreiritzi sexisten transmisiorako dauden tresnetan eragitea lortu nahi da, baloreetan oinarritutako hezkuntza sustatuz. Horretarako beharrezkoa da hezkuntza ikastetxeetatik arantzago doan arloa dela ulertzea, guraso eta lagunartearen eraginak erabakigarriak baitira.

MAINSTREAMING

5.M.1. Helburua:

Urteko hezkuntza programetan hezkidetzan oinarritutako baloreak barneratu

5.M.1.1. Ekintza: Herriko ikastetxeen artean hezkidetzeta batzordea sortu, esperientzien elkartrukatzea errazteko eta plangintza komunak diseinatzeke.

Azalpena: Ikastetxeek plangintza bateratua lantzeko eta egindako lanaren isla gehitzeko ezinbestekoa da Hezkidetzeta Batzordea martxan jartzea.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Ikastetxeak

Aurrekontua: 11.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5.M.1.2. Ekintza: Hezkidetzeta Batzordean parte hartzen duten ikastetxeetan lantzeko “Hezkidetzeta Programa” diseinatu eta martxan jarri.

Azalpena: Hezkidetzeta Programaren baitan, ikasle, guraso eta irakasleei zuzendutako ekimenak burutuko dira eta ikastetxeei etengabeko aholkularitza ere eskainiko zaie.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hezkidetzeta Batzordea

Aurrekontua: 40.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5.M.2. Helburua:

Emakumeen diskriminazioa indartzen duten hizkuntza erabilera, irudi eta edukiak dituzten hezkuntza materialak baztertu

5.M.2.1. Ekintza: Hezkidetza materialen, giden eta programen inguruko informazioa zabaldu hezkuntza zentroetan, jarraitu beharreko irizpideak finkatuz.

Azalpena: Hezkidetza Batzordeak eskaini beharreko aholkularitzaren baitan materialen inguruko informazioa banatuko da.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hezkidetza Batzordea, ikastetxeak

Aurrekontua: 5.M.1.2. ekintzaren aurrekontuan

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

5.J.1. Helburua:

Emakume gazteen jabeakuntza prozesurako oinarriak finkatu

5.J.1.1. Ekintza: 15-18 urte bitarteko neskei zuzendutako ikastaroa antolatu Jabeakuntza Eskolaren baitan

Azalpena: Jabeakuntza Eskolaren sistematizazio prozesuan, emakume gazteekin lan egiteko beharra azpimarratu zen, horregatik beharrezkoa da nerabeen jabeakuntza prozesuan aurrerapausoak ematea

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Jabeakuntza Eskola eta Hezkidetza Batzordea

Aurrekontua: 1.500 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5.J.2. Helburua:

Emakume etorkinen parte hartzea eta integrazioa sustatu

5.J.2.1. Ekintza: Emakume etorkinei zuzendutako ikastaroak antolatu.

Azalpena: Ikastetxeen bitartez eta Jabeakuntza Eskolaren baitan emakume etorkinei zuzendutako euskara ikastaroa antolatu.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Euskara Arloa, Hezkidetza Batzordea, Jabeakuntza Eskola, AEK

Aurrekontua: 2.000 euro urteko

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

5.B.1. Helburua:

Etxeko eta zaintza lanetan mutil eta nesken arteko erantzunkidetasuna areagotu

5.B.1.1. Ekintza: Ikastetxeetan rol eta estereotipoen “trukaketa” lantzeko programa berezi bat landu

Azalpena: Tradizioz emakume eta gizonei esleitutako rolei egotzitako aktibitateen ezagutza sexu bien artean zabaldu

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hezkidetza Batzordea, ikastetxeak

Aurrekontua: 5.M.1.2. ekintzaren baitan (Hezkidetza Programa)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5.B.2. Helburua:

Haurren zaintzari dagokionez, familien antolaketa errazteko baliabideak eskaini

5.B.2.1. Ekintza: Ordutegi eta zerbitzuei dagokienez gurasoen beharrak ezagutzeko azterketa bat egin eta beharrezkoak diren neurrien inguruko hausnarketa bultzatu.

Azalpena: Inkesta eta teknika kualitatiboen bitartez denboraren eta espazioen erabilera eta zerbitzuen beharrak identifikatzeko azterketa bat egin.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hezkidetza Batzordea, ikastetxeak, haur eskolak

Aurrekontua: 15.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

5.I.1. Helburua:

Mutil eta nesken artean berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko harremanak bultzatu

5.I.1.1. Ekintza: Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko programa bat landu DBHko ikasleekin

Azalpena: Hezkidetza Programaren baitan, indarkeria prebenitzeko programa landuko da.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikaturako agenteak: Hezkidetza Batzordea

Aurrekontua: 5.M.1.2. ekintzaren baitan (Hezkidetza Programa)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

ONDARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. UDAL PLANA.
Berdintasunerako bidean, emakumeen kontrako indarkeriari aurre eginez

5.I.1.2. Ekintza: Ikastetxeetan antzematen diren txar kasuak identifikatu eta hitzartutako protokoloaren arabera erantzuna eman.

Azalpena: Protokoloan sinatutako konpromisoa gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

Arduradunak: Protokoloaren koordinazio orokorra (arduradun politikoa), Koordinazio Teknikorako Mahaia, Koordinazio Politikorako Batzordea.

Inplikatutako agenteak: Ikastetxeak

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

5.I.1.3. Ekintza: Nerabe eta gazteen arteko bikote harremanen azterketa egin.

Azalpena: Herriko ikastetxeetan nerabeen arteko harremanen azterketa egingo da, indarkeria kasuak prebenitzeko eta identifikatzeko.

Arduradunak: Berdintasun Arloa

Inplikatutako agenteak: Hezkidetza Batzordea, Ikastetxeak

Aurrekontua: 15.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

6. GIZARTERATZEA

Diskriminazioaz ari garenean beharrezkoa da sexuen artean ematen den egoeratik arantzago joatea, arrazak, maila sozial eta ekonomikoak, autonomia mailak eta abarrek gizartean integratzeko aukerak mugatzen baitituzte. Hau argituta, diskriminazioa pairatzen duten kolektiboen baitan orokorrean emakumeak direla egoera latzenak bizi dituztenak aipatzea beharrezkoa da.

Gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desorekak, beste faktore batzuekin batera, emakumeak gizonak baino egoera zaurigarriagoan egotea eragiten du, zenbait kasutan pairatzen duten diskriminazioak eremu askotan eragiten duelarik.

Gauzak horrela, beharrezkoa da bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden emakumeei baliabide eta zerbitzuak eskaintzea. Udalak herritarren gizarteratzearen aldeko lana egiteko erabiltzen duten tresna Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hauxe dio 45. artikuluan, gizarteratzeari dagokionez: *“Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarrizko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboari zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte”.*

MAINSTREAMING

6.M.1. Helburua:

Gizarte Zerbitzuetako Arlorak hurbiltzen diren emakumeen eta gizonen egoera ezagutzeko tresnak landu eta areagotu.

6.M.1.1. Ekintza: Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen inguruko informazioa bildu, sexu aldagaiari lehentasuna emanez.

Azalpena: Erabiltzaileen datu baseak egokitu, datuak sexuka ezberdintzeko aukera emateko.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea eta Ondarroako Udala

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

6.M.1.2. Ekintza: Gizarte zerbitzuetatik eskaintzen diren zerbitzu eta laguntzen inguruko informazioa eskaini.

Azalpena: Lea Artibain Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen duen gida bat landu, bertan zerbitzu eta prestazio guztien inguruko informazio argia eta zehatza agertuko delarik (talde guztien beharrak hartuko dira kontutan).

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea eta Ondarroako Udala)

Aurrekontua: Aurrekontua gidaren zabaltze mailaren arabera finkatuko da (Ondarroa edo eskualde mailan egitea, bertan eskainitako informazio kopurua...)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

JABEKUNTZA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA:

6.J.1. Helburua:

Droga mendekotasun arazoak izanik gizarte bazterketa jasateko arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko.

6.J.1.1. Ekintza: Administrazioako teknikariak droga-mendetasunak dituzten emakumeen egoeran eta genero-ikuspegia oinarritzat hartuta droga-mendetasunen prebentzioan prestatu.

Azalpena: Drogen kontsumoan generoak daukan eraginaren inguruko hitzaldia antolatu.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea eta Ondarroako Udala)

Aurrekontua: 500 euro.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

6.J.2. Helburua:

Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden etorkinei zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko.

6.J.2.1. Ekintza: Kanpaina bereziak emakume etorkinei zuzenduta. Baliabideak ezagutarazteko komunikazio iturri egokienak aztertu eta erabili (adib.: ikastetxeak).

Azalpena: Eskuragarri dagoen informazioa emakume etorkinengana helarazteko bide egokienak identifikatu eta erabiliko dira.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea eta Ondarroako Udala

Aurrekontua: Ez da kostu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

6.J.3. Helburua:

3. adineko edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko.

6.J.3.1. Ekintza: Etxebizitzak talde honen beharretara egokitzeko dauden laguntzak aztertu eta ezagutzera eman.

Azalpena: 6.M.1.2. ekintzan landuko den gidan, prestazio eta diru laguntza ezberdinen inguruko informazioa lantzea aurreikusten da.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

6.B.1. Helburua:

Mendekotasun egoeran dauden pertsonei eta hauen zaintzaz arduratzen direnen bizi kalitatea hobetzeko baliabideak handitu.

6.B.1.1. Ekintza: Zaintzaileei zuzendutako ikastaroak eskaini emakume izateak zaintza lanetaz kargutzeko daukan eragina aztertuz.

Azalpena: Zaintza lanak eragiten dituen ondorio eta egoeretatik hausnartzeaz gain, lan hau betetzerakoan emakume izateak daukan garrantzia aztertzea bilatuko da. 4.B.1.1. ekintzarekin bateratu beharreko ekintza.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Berdintasun Arloa, Jabekuntza Eskola

Aurrekontua: 1.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

6.B.1.2. Ekintza: Mendekotasun egoeran dauden pertsonei zuzendutako zerbitzuak biztanleen beharrezko neurriak hartu.

Azalpena: EELZko ordu kopurua dagoen eskaerara egokitzeko neurriak hartu.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea, Ondarroako Udala, EELZ erabiltzaileak

Aurrekontua: Eskaeraren zenbatekoa aldakorra izateak zerbitzuaren handitzearen zenbatekoa zehazteko ezintasuna sortzen du, honek aurrekontua ahalik eta malguena izatea eskatzen duelarik.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Gizarte zerbitzuei dagokienez, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko plan honetan biltzen diren neurriak azken atalean lantzen dira (7.arloa).

7. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria bere 50. artikuluan: “*sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokabide horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan*”.

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larriena da. Arazo honi irtenbidea emateko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak antolatzea, baina aldi berean beharrezkoa da diskriminazio mota guztien aurka lan egitea bizitzako eremu ezberdinetan: komunikabideetan, lana eta enplegu munduan, erabaki gunetan, familiarrean ...

Berdintasun plan honetan eta egindako lana indartzeko helburuarekin arreta berezia jarri da emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko eragile bakoitzak duen betebeharrari, guztien arteko elkarlana bultzatzea eta indartzea lortzea bilatu delarik.

7.1. Helburua:

Indarkeria jasan duten emakumeek erabiltzen dituzten ibilbide asistentzialeko zerbitzuak hobetu

7.1.1. Ekintza: Gizarte zerbitzuen instalazioei dagokionez intimitatea eta pribatutasuna bermatzeko beharrezkoak diren hobekuntzak egin.

Azalpena: Gizarte zerbitzuak eraikin berri batera pasatuko direnez, honen berrikuntza lanetan, zerbitzuaren beharrianak kontutan hartu behar dira (pribatutasunari eta intimitateari dagokionez)

Arduradunak: Hirigintza Arloa

Inplikaturako agenteak: Gizarte Zerbitzuak

Aurrekontua: Eraikin berriaren erreforman aurreikusitako gastuen baitan

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.1.2. Ekintza: Mankomunitateko zerbitzu juridikoa edo atentzio psikologikoa erabiltzen duten emakumeei haurren zaintzarako zerbitzua eskaini

Azalpena: Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko duten ekimenak gainontzeko arloetan ere aurreikusten direnez, zerbitzu hau bateratzeko neurriak hartuko dira.

Arduradunak: Lea Artibaiko Mankomunitatea

Inplikaturako agenteak: Aisialdi taldeak,

Aurrekontua: Aurrekontua beharrianak aztertzerakoan definituko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.1.3. Ekintza: Tratu txarrak jasan dituen emakumeak haurrak dituenen eta amak horrela nahi izanez gero adin txikiko hauek EISEra bideratzeko aukera eskainiko da.

Azalpena: Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen haurrei familia hezitzaileekin lana egiteko aukera eskainiko zaie.

Arduradunak: Ibilbide asistentzialeko zerbitzu guztiak

Inplikaturako agente guztiak: EISE

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.1.4. Ekintza: Epaitegietara joateko garraioa eskuratzeko arazoak dituzten emakumeei garraio zerbitzu bat eskainiko zaie.

Azalpena: Zerbitzu hau eskaintzeko diru partida berezi bat sortuko da eta herriko taxistekin hitzarmena sinatuko da zerbitzua eskaini dezaten, horretarako prestakuntza berezia eskainiko zaie.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Herriko taxistak, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: 500 euro urteko.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.1.5. Ekintza: Ibilbide asistentzialeko zerbitzuek idatziz pasatzen duten informazioa bateratu eta sistematikoki tratu txarrak jasan duten emakumeei pasatu.

Azalpena: Indarkeria kasuetarako eskaintzen diren zerbitzuen inguruko informazioa sistematizatuko da eta modu bateratuan zabalduko da indarkeria jasan duten emakume guztiei.

Arduradunak: Berdintasun Arloa eta Lea Artibaiko Mankomunitatea.

Inplikaturako agenteak: Ibilbide asistentzialetako zerbitzuak **Aurrekontua:** 10.000 euro

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.1.6. Ekintza: Indarkeria kasuen perfila ezagutzeko erregistro komun bat sortu, eguneratzeko arduradunak definituz eta informazioaren zabaltze egokia bermatuz.

Azalpena: Indarkeria jasan duten emakumeen perfila ezagutzera ematea da neurri honen helburua, horrela, indarkeria kasuak prebenitzeko eta aurre egiteko politika egokiak diseinatuko baitira.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Ibilbide asistentzialeko gainontzeko zerbitzuak, Berdintasun Arloa

Aurrekontua: Langileriaren lan orduak. Ez da kostu gehigarririk aurreikusten.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.2. Helburua:

Indarkeria jasan duten emakumeen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren zerbitzuak eta baliabideak sortu

Hitzarmenak sinatu beste herriekin.

7.2.1. Ekintza: Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei babes pisua eskaini, eskualdean bat sortzeko aurrerapausoak ematen diren bitartean inguruko herri edo administrazioekin (Foru Aldundia) hitzarmenak sinatuko dira.

Azalpena: Indarkeria jasan duten emakumei ostatua eskaintzeaz gain beraien asistentzi eta arretarako zerbitzuak eskaini behar ditu babes pisuak.

Arduradunak: Protokoloaren koordinazio orokorra (arduradun politikoa), Koordinazio Teknikorako Mahaia, Koordinazio Politikorako Batzordea.

Inplikaturako agenteak: Ibilbide asistentzialeko gainontzeko zerbitzuak, Berdintasun Arloa, Bizkaiko Foru Aldundia, hitzartutako gainontzeko udalerrriak

Aurrekontua: Jarraitu beharreko bideak finkatuko du aurrekontua

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.2.2. Ekintza: Tratu txarrak jasan duten emakumei zuzendutako urgentziazko arreta psikologiko zerbitzua eskaini (Araba eta Gipuzkoako ereduak jarraituz)

Azalpena: Indarkeria kasua emandakoan eta gainontzeko zerbitzuen ordutegietatik kanpo, beharrezkoa den aholkularitza eskaintzeko, urgentziazko arreta psikologikoa eskainiko da

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Ibilbide asistentzialeko gainontzeko zerbitzuak, Berdintasun Arloa, Bizkaiko Foru Aldundia

Aurrekontua: Zerbitzuaren ardura zein administrazioen gain geldituko den erabaki politikoa izanik, aurrerago definituko da neurriaren kostua

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

7.2.3. Ekintza: Tratu txarrak jasan duten emakumei tratu txar egoera horren ondorioz eratorritako tramiteak burutzeko laguntza psikologikoa eskaini beharrezkoa den kasuetan.

Azalpena: Beharrezkoa den kasuetan eta indarkeria jasan duten emakumeak hala nahi dutenean, tramiteak burutzeko laguntza psikologikoa eskainiko zaie.

Arduradunak: Gizarte Zerbitzuak

Inplikaturako agenteak: Lea Artibaiko Mankomunitatea

Aurrekontua: Zerbitzu psikologiko honen estaldura mailaren arabera finkatuko da.

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

EBALUAZIO SISTEMA

EBALUAZIO SISTEMA

Planaren betetze maila eta baliagarritasuna ezagutzeko ezinbestekoa da hau ebaluatzeko sistema egoki bat definitzea. Gauzak horrela, 4/2005 Legearen 5.d artikuluan Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunei dagokionez, zera arautzen da: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten diren berdintasun-politikak aztertzea eta lege hau zein neurritan betetzen den ebaluatzea.”*

Ondarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal planari dagokionez, jarraitu beharreko ebaluazio sistema bi adierazle mota ezberdinetan oinarritzen da:

Emaitzen adierazleak: Planean identifikatutako **helburuen betetze maila** aztertzen dute, hau da, gizartearen errealitatea zein neurritan aldatu den aztertzeko tresnak dira.

Emaitzen adierazleen hasierako egoeraren eta planaren iraunaldia bukatzean islatzen duten errealitatearen arteko aldeak, planteatutako helburuen betetze maila identifikatuko dute. Hau da, planaren amaieran neurtzen direnez, hasierako egoera zenbat aldatu den eta beraz helburua lortu den ala ez zehazten dute.

Emaitzen adierazleak prozesu adierazleen eboluzioaren arabera aldatu daitezke, betiere honen arrazoiak azalduz eta talde tekniko, batzorde politiko eta jarraipen batzordearen onespenerekin.

Emaitzen adierazleen balioespena talde teknikoak idazkaritza teknikoaren laguntzarekin egitea aurreikusten da.

Prozesu adierazleak: Planean burututako **ekintzen betetze maila** aztertzen dute, epe laburrean ematen diren aldaketak neurtuz. Planaren jarraipena egiteko erabiltzen dira, ekintzak gauzatzen ari diren ala ez eta zein mailatan neurtzen dute. Hauen balioespena urtero egin behar da, ebaluatu beharreko ekintza burututakoan, lan hau arloetako teknikarien esku gelditzen da eta ebaluazio fitxen betetzearekin burutuko da (idazkaritza teknikoaren aholkularitzarekin).

Adierazle hauen bitartez, informazio erabilgarria eskaintzea bilatzen da, aurrera begira diseinatutako ekintzak birplanteatzeko aukera eskaintzen baitute.

Dokumentu honetan, lehenbizi emaitzen adierazleak identifikatzen dira, planteatutako helburuen arabera sailkatuta, ondoren, ekintza bakoitzeko ebaluazio fitxetan prozesu adierazleak izendatzen dira, talde teknikoari lana errazteko helburuarekin.

EMAITZEN ADIERAZLEAK

1. NEURRI OROKORRAK:

1.M.1. Helburua:

Zeharkako berdintasun politikak bultzatu eta ebaluatzeko mekanismoak sortu

Emaitzen adierazleak:

- Arloen arduradun teknikoen %80a Berdintasun Plan honen 2 proiektutan edo gehiagotan inplikaturiko da modu zuzenean.
- Arduradun politikoen %100k, aktiboki, Berdintasun Plan honen 2 proiektu edo gehiago sustatuko dute
- Plan honen ekintza eta proiektu guztiak ebaluazio sistema bati erantzungo diote, adierazleak eta jarraipenerako fitxak bete beharko direlarik.
- Udal langileriaren %50k Berdintasunerako Udal Ordenantzaren berri izango du.

Egiaztapen iturriak:

- Planaren jarraipenerako fitxak
- Talde teknikoaren eta batzorde politikoaren bileren aktak
- Planaren azken ebaluaziorako inkesta

1.M.2. Helburua:

Gizon eta emakumeen egoera ezagutzeko tresnak landu, sexuaren araberako datuen bilketa sistemak hobetuz eta areagotuz.

Emaitzen adierazleak:

- Udaletik edo Udalarentzat landutako ikerketa, memoria edo gainontzeko dokumentuen %80k datuak sexuka ezberdinduko du, emaitzen genero analisia barneratuz.

Egiaztapen iturriak:

- Udalarentzat edo Udaletik landutako dokumentuen genero analisirako fitxak.

1.M.3. Helburua:

